



## Klaseko lagunak | Cuento sobre la diversidad y las diferencias

Aprende euskera con tus txikis y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/klaseko-lagunak>

---

Kaixo!

Leire dut izena eta 8 urte ditut. Eskolan **hainbat lagun** dauzkat eta guztiak oso **jatorrak** dira. Txikitatik **elkar ezagutzen dugu** eta irakasleek esaten digute “talde ona” osatzen dugula.

**Egia da** txikiagoak ginenean arazo batzuk izan genituela... **ez dut gezurrik esango.**

Mikeli “Baloia” esaten genion eta **futbolean jolasteko** ez zuen inork aukeratzen bere taldean parte hartzeko. Eta Anek ezin zituen gauza batzuk jan eta arraro begiratu genion. Maialanek, ordea, dena jaten zuen baina ez zuen ezer ikusten eta gainera modu **bitxi** batean **idazten ikasi** zuen. Eta Jon beti azkena uzten genuen bere **gurpil-aulkian** mugitzea asko kostatzen zitzaiolako.

¡Hola!

Me llamo Leire y tengo 8 años. En la escuela tengo un **montón de amigos** y todos son muy **majos. Nos conocemos** desde pequeños y los profesores nos dicen que formamos un “buen grupo”. **Es verdad que** cuando éramos pequeños tuvimos algunos problemas.. **no voy a mentir.** A Mikel le llamábamos “Balón” y cuando **jugábamos a fútbol** nadie le elegía para su equipo. Ane no comía algunas cosas y le mirábamos raro. Maialen, sin embargo, comía todo pero no veía nada y además, aprendió a escribir de una forma muy **extraña.** Y a Jon siempre le dejábamos el último porque con su **silla de ruedas** le costaba mucho moverse.

Eta ni... ba irakurtzen ikasten hasi ginenean ez nuen ezer ulertzen. **Letrek dantzan ematen zutela** eta gero matematiketan ere, **gauza bera** gertatu zitzaidan. Irakaslea **horretaz konturatu zen** eta gurasoek zer gertatzen ari zena jakiteko hainbat lekutara eraman gintuen. Azkenean esan zidaten dislexikoa nintzela. Orain **besteek baino astiroago** irakurtzen dut baina klasekideek beti laguntzen didate.

Y yo... cuando aprendimos a leer, no entendía nada. **Parecía que las letras bailasen** y luego en matemáticas, me pasó **lo mismo.** La profe se dio cuenta de esto y aita y ama me llevaron a muchos sitios para saber qué es lo me pasaba. Al final me dijeron que era disléxica. Ahora leo mucho **más lento que los demás** pero mis compis de clase siempre me ayudan.

Konturatu zara nire klaseko lagunak oso bereziak direla, ezta? A, eta iaz etorri zena **aipatzea** ahaztu zait!! Xia Txinatik etorri zen eta heldu zenean ez zuen gure hizkuntza ezagutzen eta oso **lotsatia** zen. Guk “**1, 2, 3 eguzki**” jolasa irakatsi genion eta berak guri “Dragoiaren burua” izeneko jokua. **Ilara batean** jarri behar ginen denok: lehenengoa, burua zenak, azkena (**buztana**) harrapatu behar zuen. Oso dibertigarria da!



¿Te has dado cuenta de que mis amigos son muy especiales, no? ¡Ah! ¡Y se me ha olvidado **mencionar** a la que vino el año pasado! Xia vino de China y cuando llegó no conocía nuestro idioma y además era muy **vergonzosa**. Nosotros le enseñamos el juego de “**1,2, 3, carabin bon ban**” y ella a nosotros el de “La cabeza del dragón”. Nos teníamos que poner todos **en fila**: el primero era la cabeza y tenía que coger al que estaba el último, que hacía de **cola**.  
¡Es muy divertido”

Azken hiru urte hauetan Arantza izan da gure irakaslea **eta pasa den astean** esan zigun “Jubilatuko zela”. Guk ez genekien zer zen hori eta berak urte asko klaseak ematen zeramatzala eta bere adinarekin atsedena hartu behar zuela esan zigun. **Horregatik** lana eta **klaseak emateari utziko** zion. Zelako pena hartu genuen klaseko lagunok.

—Eta orduan ez zaitugu berriro ikusiko? — galdetu zion Anek.

Andereñoak erantzun zion bisitan etorriko zela, baina gu oso triste geratu ginen.

Arantza ha sido nuestra profe durante los últimos 3 años y la **semana pasada** nos dijo que “se iba a jubilar”. Nosotros no sabíamos qué era eso y ella nos dijo que llevaba mucho años dando clases y que a su edad necesitaba descansar. Y **por eso** iba a **dejar de dar clases**.

Vaya pena que nos dio a los de clase...

Hurrengo egunean klasea izan genuen Aitorrekin, ingeles irakaslea, eta **proposatu** zigun Arantzari agur esateko zerbait berezia prestatzea. **Jolas orduan** elkartu ginen klasekideok eta plan bat pentsatu genuen. Arantzaren azken egunean, jai sorpresa bat egingo genion!!

Al día siguiente tuvimos clase con Aitor, el profe de inglés y nos **propuso** que preparáramos algo especial para despedir a Arantza. Nos juntamos los de clase en el **recreo** y pensamos un plan. ¡El último día de clase de Arantza le haremos una fiesta sorpresa!

**Aste bat barru**, klaseak amaituta zeudela abisatzeko **txirrinak jo** zuen eta bat-batean argia joan zen eta sorpresa hasi zen! Dena **ilunpetan** zegoen eta ez genuen ezer ikusten.

—Egon lasai! — esan zuen Maialanek eta bere makila berezi horrekin gidatu gintuen beste gela batera. Han argiak piztu ziren eta...

—SORPRESA!!! — oihukatu genuen.

**Al de una semana, sonó el timbre** que avisaba que las clases habían terminado y de repente se fue la luz ¡y comenzó la sorpresa! Todo se quedó **a oscuras** y no veíamos nada.

—¡Estad tranquilos!— dijo Maialen y nos guió a otra clase con ayuda de su bastón especial. Allí se encendieron las luces y..

—¡SORPRESA!— gritamos.



Arantza **aho zabalik** geratu zen. Gela **puxikekin** apainduta zegoen eta arbelean mezu bat idatzita zegoen: **Faltan botako zaitugu**, Arantza!

Gero Anek ekarri zuen glutenik gabeko prestatutako pastela eta Mikelek marrazki eder bat oparitu zion Arantzari. Jonek **bere omenenezko idatzitako testu bat** irakurri zion eta nik “Txoria, txori” kanta abestu nion (Mikel Laboa asko gustatzen zitzaiolako).

Eta amaitzeko, Xiak eman zizkigun bere herrian oso famatuak diren zortearen gailetak.

Jaia amaitu zen eta **gogotsu besarkatu genuen**. Arantzari **malko** pare bat jautsi zitzaizkion eta guzti!!

Arantza se quedó con la **boca abierta**. La clase estaba adornada con globos y en la pizarra estaba escrito un mensaje que decía: **¡Te echaremos de menos**, Arantza!

Luego Ane trajo el pastel sin gluten que había preparado y Mikel le regaló a Arantza un dibujo muy bonito. Jon le leyó un texto que había escrito **en su honor** y yo le canté “Txoria Txori” (porque a la andereño le gusta mucho Mikel Laboa)

Y para terminar, Xia nos dio unas galletas de la suerte que son muy famosas en su país. Se terminó la fiesta y nos **abrazamos muy fuerte**. ¡A Arantza se le cayeron un par de **lágrimas** y todo!

Oso ondo pasatu genuen eta agur **hunkigarria** egin genion gure Arantzari.

Lo pasamos muy bien y le hicimos una despedida muy **emotiva** a Arantza.

**Dena den**, guk **elkarrekin** jarraituko dugu bakoitzak bere **berezitasunekin**:

Mikel potolo izanda baita margolari trebea ere, Ane zeliakoak bere glutenik gabeko tartak prestatuko dizkigu, Maialenek bere makila bereziaz baliatuz gidatuko gaitu argia joaten denean, Jonek bere gurpil-aulkitik hainbat ipuin idatziko dizkigu, Xiak txinera irakatsiko digu eta nik, **nahiz eta** irakurtzeko zailtasunak izan, musika klasean onena naiz!

**De todos modos**, nosotros seguiremos **todos juntos**, cada uno con sus **particularidades**: Mikel siendo regordete y también dibujando genial, Ane que es celíaca nos seguirá preparando tartas sin gluten, Maialen nos guiará con su bastón especial cuando se vaya la luz, Jon desde su silla de ruedas nos escribirá muchos cuentos, Xia nos enseñará chino y yo, **a pesar de que** me cueste mucho leer, ¡en clase de música soy la mejor!

Denok ezberdinak.

Todos diferentes.

Denok bereziak.

Todos especiales.

Eta zure klasean, nolakoak zarete?

Y en tu clase, ¿cómo sois?